



AYUNTAMIENTO
del VALLE de EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA

**“Joakin Lizarraga Elkanokoa”
Euskarazko Narrazio Laburren
Saria 2017**

Lehen Hezkuntzako 5. maila: 2. saria:

MENDIZALEA ETA AZERIA

Alexandra Pempko Runtov

Egun ederra izan zen mendizaleak mendira eguna pasatzera joatea erabaki zuenean eta txoriak ikustera. Bere amonak ogitarteko bat egin zion mortadela eta gaztarekin.

Mendizalea mendira joaten zen eta txoriak abesten zuten, eta arrainak salto egiten zuten lakuan, eta laku horretan zegoen arrain hori bat. Ordu bat eta gero Basora ailegatu zen eta eseri zen ikustera. Eseri eta txoriak begiratzen hasi zen eta loreak usaintzen oso pozik zegoen. Baina etorri zen azeria eta esan zion:

—Zer egiten duzu zuk hemen?

—Mendian disfrutatzen eta txoriak ikustera etorri naiz. —Esan zuen mendizaleak.

Azeriak janaria zuela ikusi zuen eta esan zion:

—Nahi duzu nirekin negoziatu?

—Nola negoziatu? —Esan zion mendizaleak.

Azeriak erantzun zion:

—Horrela, zuk ematen didazu janaria eta nik uzten dizut pakean sartzen.

—Baina nola pakean utzi? Ez, ez eta ez, ez dizut nire ogitartekoa emanen. —Esan zuen oso haserre mendizaleak.

Azeria gaiztoa zenez janaria hartu zion eta korrika hasi zen, mendizaleaz ihes egiten. Mendizalea putzu batean erori zen, zapatilak galdu zituen eta etxera joan zen. Orduan, amonak esan zion:

—Ongi pasatu duzu?

—Ez. —Negar eginda erantzun zion mendizaleak.

Eta mendizaleak, orduz geroztik erabaki zuen mendira joaten bazen bi bokata hartuko zituela, eta horrela ez zituen arazo gehiago izanen.